

OTOITZEAN SORTA

Abadiñon, San Blasetan

Kantak dinoan moduan, Abadiñon izan zen, San Trokaz parroko sakristian, hain zuzen ere, San Blas egun batez. Esteban Orbe bertako parrokoak, meza ematen hasi orduko, liburuxka polit bat oparitu zidan; 110 otoitz eta kanta zituen liburutxoak, eta hola zekarren lehen orrialdean:

“Abadiño-ko Elexan abestuko diran Otoi-eskariak.

Zornotza'n Jaungoiko Zale'ren Irarkolan. 1927”

Argitalpen elebiduna da. Lehen 42 zenbakiak meza santua eta bezperak kantatzeko otoitzak dira, latinez. Ondoren, 43.etik aurrera gehien bat euskaraz, holako ataletan bananduta: Gure Jaunari, Jesus'en biotzari, Andra Mariari, Mixiño abestiak, Askotarako, Gabon jayetarako. Amaitzeko Te Deum, Jau-nartu ondoren esateko toitz bi eta Bila-bidea.

Liburutxo hori esku artean, buruari bueltako emanaz, hauxe pentsatu neban: gaur egun, Durangaldean, antzeko zeozer egi-tea ezinezkoa litzateke? Liburutxo apalak, erlijio gaiekin, elizta-rraren artean zabaldu ahal izateko? Zer argitaratu? Zelan zabaldu? Diru galtze handia suposatuko luke?

Lagun artean afaltzen

Asmo hau buruan, abade arteko afari batean, hainbat toki euskaldunetako parrokoak bertan, gai hau atera neban. Lehen ahalegina, proba moduan egitekoa, ez zuen inork txarto ikusten. Jarraipenik izango ote zuen jakin ez, eta proba hori Jesu-kristori eskainitako otoitzekaz osatzea pentsatu zen, gure fedearen muina hori dala-eta. Durangoko Uribarriko Andra Mari Eliza arduratuko zen lehen inbertsioaz, holako gauzekin normalena dirua galtzea izan ohi dela eta.

Patxi Loidiren 26 otoitz euskaratu genituen, ebanjelioan oinarritutakoak denak. Loiolako Inazioren otoitz bi, Pedro Casaldaliga eta Broze Vuleta kroataren bana, 30 poemako sorta osatu arte. Etxean egin genuen diseinu erre bat, eta kopiak Durangoko Metro Fotokopistegian, 200 ale, euro banan zabaltzeko asmotan inguruko parroketan. 2004. urtea zen. “Jesukristorekin otoitzean” zeukan izena.

Egin eta berehala zabaldu eta agortu eta bigarrenez ere kopiak egin ziren. Mezatan, gazte taldeetan, HOACeko kide artean, katekisten artean... Gauza bat ere argi geratu zen: gure eliztarren artean zabaltzeko, letra handiagoa beharko zela.

Gaiak finkatzen: hiru arlodun sorta bakarra

“Aste Santua eta Pazkoa otoitzean” izan zen bigarren alea, aldi liturgiko horri lotutako 20 otoitzekin osatuta; sei Bitoriano Gandiagaren poema-otoitzak, eta besteak Patxi Loidiren otoitzak, Anjel Mari Unzuetak euskaratuta. Argi genuen, euskal literaturan bazela nahiko poema eta otoitz, han eta hemen sakanatuta, batu eta eliztarren artean jartzeko modukoak, ederrak, Vatikanoko II. Kontzilioaren harira. Eta ezjakintasunaz aurkitu ezin genituenak, euskaratu egingo genituela.

Durangon, 2004. Pazkoko data dakar aletxo honek, eta Labayru Ikastegiko Segundo Oar-artetaren aholkuari jarraituz, harrokeria tanta batekin, “Otoitzean sorta” izeneko bigarren alea

esaten genuen. Ausardia? Premonizioa? Metro fotokopiategian atera zen bigarren ale hau, eta lehenengoarekin jaso zen legez, kaleratu eta agortu, gauza bera izan zen.

Inguruan bazen euskaldun nahiko, eliztar edo bilatzaile, holako gauza arin eta irakurterrazak erosteko prest.

2004. Pentekoste edo Maiatz-Pazkoko data darama hirugarren aleak. Izena: “Bakegileak otoitzean”, Xabier Egañaren bertsoak, Patxi Ezkiaga eta Bitoriano Gandiagaren poemak eta otoitzak... 22 orrialdeko aletxo bat, hau inprentan egina, eta sasoi hartan zabaltzen zen “Tabira” eskualdeko aldizkariagaz batera zabaldu zen, 2.000 ale inguru.

Sorta honetan konstante bat izan dena finkatuta geratu zen ale honekin: hiru hari erabiliko genituen sorta hau josteko:

- Liturgia aldiei lotutako koadernoak, eliztarrak, Abade bako ospakizunen ospatzaileak edota abadeak erabiltzeko modukoak; (Aste Santua eta Pazkoa otoitzean, Garizuma otoitzean, Herria otoitzean, Betiko kurutze-bidea otoitzean, Lukasekin otoitzean, Mateorekin otoitzean...)
- Bizitzaren gai ezberdinak otoitz giroan jorrazeko lagun-garriak; (Bakegileak otoitzean, Hil eta biztu otoitzean, Poesia otoitzean, Gurasoekin otoitzean, Gaixoekin otoitzean...)
- Jainkoarengana hurreratzeko materialak: Jesukristorekin otoitzean, Espiritu Santuarekin otoitzean, Aitarekin otoitzean...

Talde lana

Sorta hau aurrera eroateak talde lan handia eskatu du. Ez da gauza bera zenbaki bat egin edota 23. Hainbat lagun egon da bildumatxo honen atzean. Aholkuekin eta laguntzeko beti prest Asier Astigarraga. Esperientzia handia zeukan liburu eta argitalpen munduan. Itzulpen lanetan, jo eta ke ibili da hainbat

lagun: Aitor Etxebarria, Larraitz Diago... Bizkaiera txukun eta garbian Juanito Gallastegiren laguntza beti izan dugu, langile fina bera. Sebastian Gartzia Trujillo izan dugu foileto bakoitzaren kritiko zorrotz eta adiskidea. Bilboko Elizbarrutiko “Alkarreren barri” aldizkarian hainbat aipamen idatzi ditu, baita ere “Hemen. Erlijio gogoetarako aldizkarian”.

2006. urtean, “Eskauta otoitzean” 15. zenbakiarekin foileto estilotik liburuxko formatura saltoa eman genuen. Durangoko Udalaren subentzio txiki bati esker, Zornotzako Erroteta etxearen esku itxi genituen diseinua, maketazioa eta ekoizpena. ISBN, lege gordailu eta itxura berri eta modernoekin, betiko edukiekin jarraitu genuen, otoitzean bizitza, liturgia eta Jainkoa.

Zenbaki berriak atera eta jarraituan, www.tabira.tk webguneko “zer irakurri” atalean jartzen ditugu liburuxka azalak eta behin behineko datuak, hantxe aurki daitezke orain arteko guzti-guztiak.

Sakontzen sorta

Bildumatxo horren osagarri da “Sakontzen” deritzaguna. Hortxe agertu zen Uribarriko Andra Mariri eskainitako bederatzizurren elebiduna, hiru argitalpen izan dituena, Oscar Romerori eskainitako foiletoa euskaraz, Pagolaren “Jesus eta emakumea” elebiduna, edo azken azkena duguna: “Aste Santua. Irakurgaiak”, gure bikario den Jose Luis Izaren ekimenez argitaratua. Zortzi zenbaki dira guztiz.

Erronkak

Betiko moduan, zabalkundea dugu erronka nagusia. Irabazteko asmorik gabeko ekimena dugu berau. Durangon errez zabaltzen da parrokien bitartez, Bilbon Jakinbide liburu-dendak laguntzen digu depositu bat bertan izanda. Bizkaian eta beste lurraldeetan arazo hori dugu, baina aleak garestitu gabe ez dugu beste bide egokirik aurkitzen.

Azken alea, 23.a, “Gaixoekin otoitzean” dugu. Prest dago zabaltzeko. Bilboko Elizbarrutiko Osasun Pastoraltzako arduradun den Marije Goikoetxearen aukera baten oinarritutako euskal bertsioa dugu, Martzel Andrinua eta Bitoriano Gandiagaren bertso batzuk gehituz. Karmelen bitartez ea Euskal Herriko beste eliztar eta parrokia batzuk honen berri duten!

Bitxikeria batzuk

Salduena: Gurasoekin otoitzean, 5.000 ale inguru.

Luzeena: Mateorekin otoitzean, 191 orrialde.

Argitalpen gehien: Abestu otoitzean, 4 aldiz.

Hizkuntza gehien: Uribarriko Andra Mari ezagutzeko famili gida. Jolas bilduma bat: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.

Jose Mari Kortazar